



ALTSASUKO UDALAK ESKAINTZEN DITUEN JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA

1. Artikulua. Xedea

Arau honen xedea da ikastaro eta tailerren udal eskaintza arautzea.

2. Artikulua. Aurrekontuko aurreikuspena.

Arau honetan xedatutako moduan antolatutako ikastaro eta tailerrak urtero udal aurrekontuetan finkatzen diren kontu-sailen kargura antolatuko dira, aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.

3. Artikulua. Ikastaroak eta tailerrak.

3.1. Udal zerbitzuak ez bezala —horiek iraunkorrakoak dira— ikastaroak eta tailerrak, beste batzuekin batera, xede bera lortzeko garatutako programa bat osatzen dute. Programak osatzen duten ikastaroek eta tailerrek denbora gutxi iraun dezakete eta urtetik urtera aldatu daitezke.

3.2. Ikastaroak garatuko dira jardueren eskaintzarekin batera onetsitako egutegiari jarraikiz.

3.3. Jarduerak hasteko, Udalak ezartzen duen gutxienekoa 10 lagunek izena ematea da. Salbuespen izango dira konplexuak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako monitoreen aldetik tratamendu berezia behar duten jarduerak, orduan gutxienez 6 lagun beharko baitira ikastaroetan.

Taldeetan gutxieneko izen emate kopururik ez bada, bertan behera utziko da jarduera eta ordaindutakoa itzuliko da.

Udalak, Gazteria arloan, gutxieneko hauek ezarri ditu autobus irteeretarako: 20 lagun 200 kilometro bitarteko distantzietarako eta 40 lagun hortik gorako distantzietarako.

3.4. Udalak beretako gordeko du eskubidea programako ordutegiak eta instalazioak aldatzeko.

3.5. Jarduera guztien egutegia jendearen eskura egongo da dagozkien udal alorretan eta baita web orrian eta Udalaren iragarki oholean ere.

Inork ezin izango du taldez, egunez edo ordutegiz aldatu, dagokion zerbitzuaren baimen espresik izan gabe.

3.6. Jarduerak egin bitartean monitoreek kontu hauen ardura izango dute:

1. Ikasleek instalazioak zuzen erabiltzea, eta giltzen kontrola.



2. Asistentziaren kontrola egitea eta dagokion udal zerbitzuari gorabehera guztien berri ematea.
3. Dagokion zerbitzuak ematen dizkien asebetetze inkestak pasa.
4. Parte-hartzaileak arretaz hartu
5. Jarduera bakoitzean erabiltzen den materiala kontrolatzea.
6. Lokala behar bezala uztea.

3.7. Matrikula prezio publikoei buruzko ordenantzaren bitartez egongo da arauturik, edo, bestela, antzekoa den beste edozein kontzepturen bitartez, Altsasuko Udalak urte barnean antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko eta egoteko eskubidea eskuratzea ekartzen badu.

4. artikulua. Aurre izen emateak

4.1. Jardueretan parte hartzeko aurre izen ematea egin beharko da 948 012 012-aren bitartez edo Udalaren webgunean, jardueren eskaintzan zehazten diren epeetan.

Eman beharreko datuak: Jardueraren kodea, izena eta bi abizen (halakorik bada), sexua, jaioteguna, helbidea, telefono-zenbakia (ahal dela, sakelakoa), NANA eta korreo elektronikoa.

Jarduera adingabe batek egiten badu, aurreko datuez gain honako hauek ere emango dira: amaren, aitaren edo tutorearen izen-abizenak, baita haien NANA ere.

Bere onartze-irizpideak betetzeko, zerbitzuren batek beste datu zehatz batzuk behar baditu, aurre-inskripzioa egiteko orduan eskatuko ditu.

4.2. Aurre izen emateko epea bukatu, Udalak parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratuko du bere web-orrian eta dagokion zerbitzu bakoitzean era berean epe bat ezarriko du erreklamazioetarako.

Aurretik izena emana duten lagunak dauden plazak baino gehiago badira, lehenik erroldatzea lehenetsiko da eta bigarrenik, inskripzio ordena. Nolanahi ere, zerbitzu bakoitzak eskumena izango du ondoko gehigarrian zehazten diren berariazko baremoak aplikatzeko. Hasiera batean onartzen ez diren pertsonak itxaron-zerrendan sartuko dira.

Gazteria Arloan, aurre-izenak plazak baino gehiago badira, lehenik herrian erroldatutako gazteek izango dute lehentasuna; bigarrenik, Altsasun erroldatu gabeko gazteek eta hirugarrenik, Altsasun erroldatutako 30 urtetik gorako helduek.

4.3. Beharrezkoa ikusiz gero, Udalak aurre izen emateko bigarren epea ireki lezake, 012-aren edo webgunearen bitartez.

5. Artikulua. Izen emateak

5.1. Erreklamazio-epea behin bukatuta, jarduera bakoitzean onetsitako pertsonen behin-betiko zerrenda eta itxaron zerrendan dauden lagunena argitaratuko dira zerbitzu bakoitzaren iragarki taulan eta web-orrian. Behin-betiko zerrendak argitaratu



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ondoren, epe bat ezarriko da izen ematea formalizatzeko (ikusitako gehigarrian), 948 012 012-ra deituz eta jardueraren ordainketa eginez.

Gazteria arloan, tailerretan parte hartzeko behar den izen ematea egin beharko da Gazte-txokoan eta/edo Gazteendako Informazio Gunean, jardueren eskaintzan adierazten diren epeetan.

Ez da beharrezkoa izango inolako helduren daturik, ez amarenik ez aitarenik ez tutorenenik, horrela behar duten jardueretan izan ezik.

5.2. Eman beharreko datuak honako hauek dira: jardueraren kodea, izena, abizenak eta banku-txartelaren zenbakia.

5.3. Jarduera ordaintzen ez bada, besterik gabe, ez da zerbitzurik edo jarduerarik egingo eta, beraz, ezeztaturik geldituko da aurre izen ematea.

Gazteria Arloan, izen- emateak tailerra hasi baino astebete lehenago arte egingo dira, salbu eta antolatetako aurrerapen handiagoa behar duenean; halakoetan, eskaintzan zehaztuko da.

5.4. Jardueraz baliatzen direnak adingabeak badira, haien aita, ama edo haien ordezkaria edo tutoretza dutenek ordaindu beharko dute jardueraren prezioa.

6. artikulua. Ordainketak

6.1. Ikastaroen prezio publikoak prezioak arautzen dituen ordenantzan zehaztuko dira, betiere aipatu ordenantzan finkatuko diren errentaren tarteren arabera. 21 zenbakidun Ordenantza Fiskalak arautzen ditu.

Gazte Arloko tailerretarako, ordainketa modua eskudirua izanen da. Izen emandako lagunari ordainagiria emango zaio, ordainketaren lekuko. Izen emateko epea bukatu ondoren, teknikariak bildutako dirua udalaren eskutan utziko du eta txosten teknikoa egingo du Ogasun Sailarentzat.

6.2. Ikastaroak kreditu-txartela bidez ordaindu beharko dira. Izen emandako pertsonak ordainketa mota hori onartzen ez badu, dirua sartzeko ahalko du adierazten zaion kontu-zenbakian. Horrela egin ezean, aukera emango zaio diruz ordaintzeko, ikastaroa antolatzen duen zerbitzuan.

6.3. Txartel bidezko kobrantza izena ematen den unean gauzatuko da. Kuota kontu-zenbakian sartzeko bada, ezarritako epean egin beharko da.

6.4. Ikastaroaren matrikula zatika ordaindu ahalko da, gehigarrian hala ezartzen den kasuetan.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

6.5.- Zatikako ordainketa izango da bi ordainketa egitea, bakoitza %50ekoa, jardueren eskaintzan ezartzen diren bi epeetan. Zatikako ordainketak ez du errekar gurik batere izango.

6.6.- Izen ematea ikasturte osorako da.

6.7.- Zatikako ordainketa duten jardueren bigarren epea ordaintzen ez bada, eta horretarako parte hartzaileak justifikazio idatzirik egiten ez badu, interesdunari jakinaraziko zaizkio Udalak hartuko dituen zehapen neurriak, ordainketa erregularizatzen ez badu aditzera ematen zaion epean.

6.8.- Irregularitasunak irauten duen bitartean, izena emanda duena ez du eskubiderik izango beste jarduera batean izena emateko.

6.9.- Otsailaren 1-etik aurrera izena ematen dutenek, kuotaren prezioaren %50a ordainduko dute.

7. artikulua. Hobariak

7.1.- Jardueren prezio publikoei dagozkien hobariak emango dira prezio publikoei buruzko 21 zenbakidun ordenantzan zehaztutako errentaren tarteen arabera. Nolanahi ere, jardueraren gehieneko prezioa zehaztutako lehenengo tarteari dagokiona izango da.

Gazteria Zerbitzuak antolatutako jardueretatik soilik bitan hartuko dira kontuan errenta-tarteak, *Gu Geu Gazte* eta *Udagazte* programetan, hain zuzen ere.

7.2. Baterako errenta-aitorpenaren fotokopia aurkeztu behar da; banaka aurkeztuz gero, bi gurasoen aitortpenak aurkeztu behar dira, edo legezko tutorearena, hala dagokioenean. Guraso bakarreko familien kasuan, gurasoari edo legezko ordezkariari dagokiona bakarrik aurkeztuko da.

7.3.- Nolanahi ere, pertsona edo familia-unitate bakoitzak errenta-aitorpen bakarra aurkeztuko du eta aitortpen horrek balioa izango du udalak antolatzen dituen jarduera guztietarako (ekainaren 30etik hurrengo urteko ekainaren 30era). Hobari berdina aplikatuko da epealdi horretan egindako izen emate guztietan.

7.4.- Gehigarrian zehaztuko da hobaria eskatzeko epea. Behin epe hori bukatuta, ez da inolako agiririk onartuko egindako inskripzioetan.

7.5.- Hobariak bakarrik aplikatuko zaizkie Altsasun erroldatuta gutxienez sei hilabete daramatzaten pertsonen.



8. artikulua. Ezeztapenak

8.1.- Izen emateak ezeztatzeko epea 7 egunekoa izanen da, izen emateko epea bukatzen denetik aurrera zenbatuta. Epe hori iraganik ez da inola ere itzuliko ordaindutako zenbatekoa, betiere jarduera aurreikusia zegoen bezala gauzatzen bada. Kirol eskoletan urriaren 15ean amaituko da izen ematea ezeztatzeko epea.

Gazteria Arloak antolatutako tailerretan ez dago inskripzioa bertan behera uzteko aukerarik; ondorioz, ez da inola ere ordaindutako zenbatekoa itzuliko, betiere jarduera aurreikusia zegoen bezala gauzatzen bada.

8.2.- Salbuespenez, eta soilik zatikako ordainketa duten jardueren kasuan, jarduera hasi ondoren interesatuak jarduera egiteko ezintasuna duela frogatzen duen mediku-ziurtagiria aurkezten badu, bigarren epearen ordainketa bertan behera utziko da (udalak egokitzat jotzen badu).

8.3.- Modu berean, zatikako ordainketa duten jardueren kasuan, interesatuak bizilekua aldatzen badu, bigarren epearen ordainketa bertan behera utziko da. Kasu horretan, urtarrilaren 31 baino lehenagotik Altsasutik 30 kilometro baino gehiagora dagoen beste probintzia edo herri batean erroldaturik dagoela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

8.4.- Eman daitezkeen beste kasu edo egoera berezietarako, udalak horietako bakoitza aztertuko du eta behar diren erabakiak hartuko.

9. artikulua. Itxaron-zerrenda

9.1. Jardueretan izena emateko epea behin bukatu ondoren eta inskribatutakoaren artean bajak eman ahala ebatziko da itxaron-zerrenda.

10. artikulua. Altak eta bajak

10.1.- Jarduera guztietan begiratuko da erabiltzaileak joaten ote diren ikastaroetara, eta jarduera jakin batean inork 15 eguneko epean saio guztietara huts egiten badu, itxaron zerrenda baldin bada, baja emango zaio. Neurri hori hala dago jarria, itxaron zerrendari dagoen eskaerari bidea emateko. Hala izanez gero, ez da ordaindutako kuota itzuliko.

10.2.- Behin izena emateko epea bukatutik, izen ematea dagokion udal zerbitzuan zuzenean egingo da.

10.3. – Ordainketa bi epetan egiteko aukera ematen duten jardueren kasuan edo dagokion zerbitzuak izena emateko beste epe bat zabaltzen badu, dagokion hobaria aplikatuko da, lehendabiziko epean egindako inskripzioen kasuan bezala. Horrela



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasua.net
alsasua@alsasua.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

egingo da baldin eta jarduera behar bezala gauzatzea bermatzen bada eta horrek talde berri bat sortzea ekartzen ez badu.

10.4.- Izen ematea ikasturte osorako da; beraz, behin ezeztatzeko epea iragan ondoren, borondatezko baja eginagatik ere osorik ordaindu beharko da jarduera.

11. artikulua. Jarduera aldaketa

11.1.- Jarduera aldaketa onartuko da betiere ukitutako bi jarduerak behar den bezala garatuko direla bermatzen bada. Jarduera aldaketa idatziz eskatu behar da.

Kirol eskoletako ordainketari dagokionez ondoko hau ezartzen da:

11.1.1.- Ordaindu behar den kuota bi kirol eskoletan berdina bada, ez da kuota aldaketarik izango.

11.1.2.- Pertsona hori aldatu nahi den kirol eskolako kuota handiago baldin bada, behin aldaketa eginda, eta araudiak dioenari jarraiki, aldea ordaindu beharko da eta, beraz, eskatutako kirol eskolaren kuota osoa ordaindu.

11.1.3.- Aldatu nahi den kirol eskolaren kuota txikiagoa bada, aldaketa onartuko da, baina ordaindu beharko den kuota hasieran aukeratutako kirol eskolarena izango da.

12. artikulua. Datuen babesa

12.1.- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu izen-ematea egiterakoan jasotako datuak Administrazio honen berezko eskumenetarako baizik ez direla erabiliko, eta Altsasuko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietara bilduko direla; halaber, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko, Altsasuko Udalaren Erregistro Orokorrera joz (Gartzia Ximenez 36, 31800, Altsasu).

12.2.- Norbaitek ez badu nahi bere izen/abizenak zerrendetan ezta web orrian argitaratzea izen ematerakoan jakinarazi beharko du.

13. artikulua. Bestelakoak

13.1- Agertu nahi diren kexa edo iradokizun guztiak egoitza elektronikoaren bitartez, udal bulegoetan edo 948012012(doako telefonoa)-ren bitartez = (012 ordainduz) aurkeztu beharko dira, idatziz.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

BERARIAZKO ARAUTEGIA

AISIZ BLAI UDA 2026

Aisiz Blai programetan sartzeko baremoa:

Arduradun bakarreko familia izanik, arduradunak , bere lanarengatik, prestakuntza-beharrengatik edota beste edozein arrazoiarengatik, programaren ordutegian seme-alaben ardura bere gain hartu ezin duenean	30 p
Bi arduraduneko familia, aurrekoaren egoera berdinean dagoenean	20 p
Bi arduraduneko familia izanik, arduradunetako batek, bere lanarengatik, prestakuntza-beharrengatik edota beste edozein arrazoiarengatik, programaren ordutegian seme-alaben ardura bere gain hartu ezin duenean	10 p
Programan, familia bereko kide bat baino gehiago izena ematen badute	3 p

Eskaera dauden plazak baino handiagoa bada, onartua izateko irizpide hauek erabiliko dira, honako ordenaren arabera:

- 1.-Lehentasuna dute inskripzioa hasten den egunetik Altsasun gutxienez sei hilabetez erroldatutako haurrek eta aniztasun funtzionala dutenek.
- 2.- Lehentasuna dute 1. aukeran izena eman dutenek (Aisiz blai ekaina)
- 3.- Sartzeko baremoa: puntuaketa handiena jaso duenak.
4. -Berdinketa emanaz gero, izen-emate ordena jarraituko da.

Altsasun ez erroldatutako haurrak onartuko dira baldin eta adinez sorturiko talde bakoitzaren ratioak baimentzen badu.

Plaza baieztatzeko nahikoa da kuota ordaintzea, betiere horretarako ezarritako epean. Ordainketa egin baina zerbitzua justifikatutako arrazoirik gabe erabiltzen ez duten pertsonak itxaron zerrendara pasatuko dira etorkizunean egiten diren Aisiz blai programetan.

AISIZ BLAI UDA-UZTAILA: Uztaileko Aisiz blai programan izena ematen duten haurren banaketarako irizpidea adinarena izango da, ikasketak egiten ari diren hizkuntz ereduak kontuan hartu gabe. Talde bat irekitzeko gutxienez 6 pertsonak eman beharko dute izena.

IZEN-EMATE EPEA: MAIATZAK 18 - 22

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: EKAINAK 3 (Ludoteka – www.altsasu.net)

ERREKLAMAZIOAK, EZEZTAPENAK ETA AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

(2024ko aitortpena, aurretik aurkeztu ez bada): EKAINAK 3 - 10 (Gure Etxea-Ludoteka auxiliaridj@altsasu.net – ludoteka@altsasu.net)

BEHIN BETIKO ZERRENDA: EKAINAK 12 (Ludoteka – www.altsasu.net)

ORDAINTZEKO EPEA: EKAINAK 12-18 Telefonoz 948012012 (Ekainak 30 arte luzatu daiteke)

KIROL ESKOLAK 2026-2027

IZENA EMATEA ETA MATRIKULA ORDAINTZEA: maiatzaren 18etik ekainaren 2ra. Plaza mugatuak. 948 012012

Izen-emateak: Kreditu txartelaren bidez 10 euroko matrikula ordainduko da, ordaindu beharreko kuota osotik deskontatuko den inskripzio bakoitzeko.

Inskripzioa baliogabetuz gero, jarduera eskaintzan agertzen den bezala egiten bada, ez da ordaindutako matrikula itzuliko.

BAREMOA: erroldatutako pertsonen lehentasuna. Bigarren irizpidea: inskripzio-ordena.

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: ekainaren 19a.

HOBARIAK ETA ERREKLAMAZIOAK ESKATZEA: Uztailaren 13tik 24ra. Gure Etxea.

ZERRENDEN ETA IZEN-EMATEN INFORMAZIOA: www.altsasu.net eta Gure Etxea.

ORDAINKETA: EPE BATEAN EDO BITAN. Kreditu-txartelaren bidez. 948 012012

1. **EPEA:** Irailaren 4etik 16era.

BEHIN BETIKO ZERRENDA: Irailak 23 (Gure Etxea, webgunea)

2. **EPEA:** 1-12 OTSAILA. DEITU 012 TELEFONORA

BALIOGABETZEKO EPEA: URRIAREN 15era ARTE.

Jardueretan izena ematea ikasturte osorako da, behin baliogabetze-aldia amaituta, borondatezko bajak ez du jardueraren prezio osoa ordaintzetik salbuesten.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

"ALTSASU MUGITZEN DA" PROGRAMA **2026.2027 IKASTURTEA**

Izena emateko epea: uztailaren 13tik 17ra.

Baremoa: Lehenetsuna erroldatuentzat. Bigarren irizpidea: izena emateko hurrenkera.
Behin-behineko zerrenda: uztailaren 21ean.

Errenta aitortpenak eta erreklamazio epea: uztailaren 22tik 24ra.

Irailaren 8an eta 9an "Mojak" gimnasioan. Errenta aitortpena Gure Etxera eramateko arazoak dituzten pertsonen Mojen gimnasioan entregatu ahal izango dute, balorazioen egunean.

ORDAINTZEKO MODUA BI EPETAN:

Hala nahi dutenek lehenengo epean ordaindu ahal izango dute kuota oso.

LEHEN EPEA: IRAILAREN 4TIK 16RA.

BIGARREN EPEA: OTSAILAREN 1ETIK 12RA.

BEHIN BETIKO ZERRENDA: Irailak 18.

DEUSEZTATZEKO EPEA irailaren 29ra arte (29a barne).

Jardueretan izena emateak ikasturte osorako balio du; behin deuseztatze epea amaituta, borondatezko bajak ez du salbuesten jardueraren prezio osoa ordaintzetik.

Programaren iraupena: irailaren 21etik ekainaren 16ra.

Hasierako balorazioak irailaren 8an eta 9an. Errenta aitortpena Gure Etxera eramateko mugak dituzten pertsonen Mojen gimnasioan eman ahal izango dute, balorazioen egunean.

Azken balorazioak ekainaren 21ean eta 22an



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

GAZTERIA SAILA 2026

Aurkeztu beharreko dokumentazioa 2024ko errenta aitortpena da, lehenago aurkeztu ez bada, Gure Etxean edo auxiliaridj@altsasu.net helbidera bidalita.

- 1.- lehenatasuna izango dute Altsasun erroldatutako gazteek, izena eman baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.
- 2.- berdinketa gertatuz gero, izen-ematearen hurrenkera erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa.

JARDUERA	DATA	ORDUTEGIA	PREZIOA	ADINA
UDAGAZTE	Uztailak 1-15	10:30-13:30	tarte	12-16
GU GEU GAZTE	Uztailak 1-24	17:00-20:00	tarte	12-30

Aniztasun funtzionala duten gazteak

PLAZA MUGATUAK:

- Aurre-inskripzioa: maiatzak 18 - ekainak 2 (948 012 012 doan)
- Behin-behineko zerrenda: ekainaren 3a (www.altsasu.net)
- Uko egiteak – erreklamazioak: ekainaren 4tik 9ra (Gure Etxea), 2024ko errenta aitortpena Gure Etxean aurkeztuz edo auxiliaridj@altsasu.net-era bidaliz.
- Behin betiko zerrenda: ekainak 13 (www.altsasu.net)
- Ordainketa: ekainak 16-20 (948 012 012 doan)